

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure egitasmoa aurrera eramateko, ezinbestekoa iruditzen zaigu beste enpresa eta erakunde batzuekin aliantzak sortzea, hauek gure proiektua aurrera eramateko giltza izango baitira. Atal honetan aliantza hauek zeintzuk izango diren eta zer baliabiderekin lagunduko diguten azalduko dugu.

Lehenik eta behin, gure klase partikularrak aurrera eramateko, ezinbestekoa da lokal bat bat edukitzea, non gure lana lasaitasunetik eta segurtasunetik egin dezakegun. Hori dela eta, Zumarragako udalarekin arituko gara elkarlanean. Zumarragako kultur etxean, Zelai Ariztin, kokatuko da gure ikasgela; hala, argindarra, sarea eta abar udalaren esku utziko genituzke. Bertan soberan egon ohi diren tamaina egokiko gelaren bat erabiliko genuke eta ondoren gure gustura apainduko genuke.



Horrez gain, bi herriak bat bezala elkarbizi direnez, bai Zumarragako eta baita Urretxuko udalak ere zerbitzu hau eskaintzeko diru-laguntza bat eskuratuko digute klaseak finantzatzeko. Zerbitzu honen bidez herrietako beharra duten ikasleei laguntzen diegulako eta horren parte izatea gustatuko litzaiekeelako eskainiko digute laguntza hau. Diru-laguntza hauei esker, gure zerbitzua ekonomikoki familia guztientzat eskuragarria izatea ahalbidetuko da.



Bestalde, ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko, nahiz eta dagoeneko kasu honekin guztiz kontzientziatuta eta sentsibilizatuta egon eta gaiari buruzko oinarritzko ezagutza izan, hainbat ikastaro ezberdin hartuko ditugu diagnostiko desberdinei buruz gehiago jakiteko eta etengabeko hobekuntza bilatzeko. Ikastaro hauek zerbitzu bikain bat emateko hobeto prestatuko gaituzte. Beraz, ikastaro hauek eskaintzen dituzten elkarteekin egongo gara etengabeko harremanetan.

Ikastaro hau Bartzelonan egingo dugu eta ingelesez da, baina txikiak garenetik ikastolan ingelesa eman dugunez eta gainera eskolaz kanpoko ekintzetara joaten garenez, ez zaigu ulertzeko zaila egingo. Ikastaroaren izenak ondo azaltzen du gure helburua “ Inclusive Education: Supporting students with special needs in the classroom in Barcelona” gure ikasleak hobetoago ulertzen ikastea.

Ikastaroa irakasleek ezagutzak eta konfiantza izan ditzaten pentsatua dago, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei modu eraginkorrean laguntzeko. Tailer interaktiboen, bizitza errealeko kasuen azterketen eta ikaskuntza kolaboratiboen bidez, estrategia berritzaileak eta metodologia inklusiboak aztertuko ditugu. Gainera hainbat motatako behar bereziak ezagutuko ditugu AFN+H, autismoaren espektro nahasmendua, dislexia eta erronka emozionalak edo portaerazkoak.

Ikastaroa hau ikusi ditugunetatik egokiena iruditu zaigulako aukeratu dugu, izan ere, gure ikasleek izango dituzten diagnostikoak lantzeko eta hauei buruz gehiago ikasteko aukera ematen digu. Horrez gain, 5 eguneko ikastaro bat denez egokia iruditzen zaigu, izan ere urrutira joan behar garenez, 5 egun nahikoa dira. Prezioaren aldetik 400€ ordaindu beharko ditu bakoitzak. Prezio egokiena iruditu zaigu, ikusi ditugun beste ikastaroak garestiagoak zirelako.

Gure bezeroak izango diren guztiak amankomunean dutena eskolara joaten direla da. Honen harira, elkarlanean arituko garen elkarte garrantzitsuenetako bat Urretxu eta Zumarragako eskola eta ikastolak izango dira. Urretxu-Zumarragan bost ikastetxe daude guztira: Urretxu-Zumarraga ikastola, Gainzuri, Jose Maria Iparragirre institutua, La Salle Zumarraga eta UGLE. Hauek gure publikitatearen oinarri izango dira, eta gure zerbitzua ikasle eta gurasoen artean ezagutzera ematen lagunduko digute. Informazio zabalketa hau zuzendaritzatik mezu bat bidaltzeaz gain, ikastetxe bakoitzeko orientazio departamentuetatik ere egingo da. Hauek baitira laguntza berezi hau beharko luketen ikasleen gurasoeekin harreman zuzenean daudenak eta gure zerbitzua gomendatuko dutenak.

Eskaintzen dugun baliabideetako bat gure webguneko informazioa da. Bertan bezeroek gurekin ordutegia zehaztu aurretik guri buruzko informazioa irakurri dezakete, gure ordutegia behatu eta aukeratzen joan daitezke eta edozein zalantza izanda gure telefono zenbakia eskura izango dute. Webgune hau sortzeko ordea laguntza behar izango dugu, guk ez baitakigu halakorik sortzen. Horretarako, herriko informatika enpresa batekin arituko gara, Labeaga auzoko “INFOMADAIA” dendarekin, gure zerbitzuaren webgunea sortu dezaten. Guk beraiei gure webgunea nolakoa izatea nahi dugun azalduko diegu eta beraiek ideia hori errealitatera ekartzen lagunduko digute.

Azkenik, egunerokoan gure klaseetan erabiliko ditugun hainbat ikas material salduko dizkigun enpresa batekin harremanetan egongo gara. Gure klaseak aurrera eramateko eta gainera entretenigarriagoak izateko ezinbestekoa da beharrezko materiala edukitzea, beraz, herriko paper-denda batekin arituko gara lanean, Kotoi izeneko paper-denda zehazki.

Beharko ditugun materialekin jarraituz, hainbat altzari desberdin beharko ditugu klaseak emateko ezinbestekoak izango direnak, arbel bat edota materiala gordetzeko armairu desberdinak adibidez. Gauza hauek guztiak ere, lokalarekin batera, Zumarragako udalak eskuratuko dizkigu, lokalak dagoeneko altzariak eta abar izango dituelako.



Hori dena kontuan hartuta, azpimarratzekoa da gure funtsezko elkarte guztiak bertakoak direla. Honek ekonomia zirkularra sustatzen lagunduko du, gure ondar aletxoak jarritz bi herriak ekonomikoki aberastuz. Gainera arazorik izanez gero edo larrialdi batean zerbait behar izanez gero, gertu izango ditugu arazo hauei aurre egiteko edota materialak azkar eskuratzeko adibidez.

